

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005ko urtarrilaren 21a / 612. zenbakia

GABIRIA DORREA

Udala eta Tavexen
artean berritu nahi dute

FUTBOLA: BERGARA-MONDRA DERBIA/8 • KULTURA: SAN PAULO ETA SAN BIXENTE JAIK/11

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ENEKO AZKARATE

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 21
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 22
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

DOMEKA, 23
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

ASTELEHENA, 24
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 25
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 26
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15

EGUENA, 27
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kirodegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notarioa 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30.	San Lorenzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:00.
Santa Marina	Moja Zaharrak
Zapatuak:	Lanegunak: 08:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
13:00.	Zapatuak: 17:30.
Sierbak	Antzuola
Lanegunak: 19:30	Domekak:
Osintxu	10:00, 11:30.
Domekak: 12:00.	Zapatuak eta
Elosu	lanegunak: 19:30.
Domekak: 11:00.	Uzarraga
Ubera	Domekak: 10:00.
Domekak: 10:30.	Elgeta
San Juan	Lanegunak: 09:00.
Domekak: 11:00.	Zapatuak: 19:30.
Elorregi	Domekak: 12:00.
Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan,

13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

1966AN JAIOTAKOAK
1966an jaiotakoaren afaria urtarrilaren 29an. Izenematea (10 euro aurrez) Ariznoa tabernan, urtarrilaren 24ra arte. Afari egunean bertan elkartuko dira, 19:30ean.

1956AN JAIOTAKOAK
1956an jaiotakoaren afaria urtarrilaren 29an Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea Zabala jatetxean bertan (943 76 20 07 telefonoa) egin daiteke, hilaren 23ra arte.

BEDELKARREN ZOZKETA
Bedelkar herriko dendarien elkarteak Gabonetan egindako zozketan 13.847 zorbakia 1.000 euroekin izan da saritua. Era berean, ondoko zorbakiek 500na euro jasoko dituzte: 7.263, 24.220, 35.369 eta 37.854.

UDAL EUSKALTEGIAREN OHARRA
Bergarako Udal Euskaltegian jardunean dauden taldeetan integratzeko aukera dago. Argibide gehiago 943 76 44 53 telefono zorbakian.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, eguaztenean, hilaren 26an, odol ateratzea egingo da Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNEN AGENDA

PATINATZERA IRTEERA
Txapligu taldeak urtarrilaren 29an Gasteizera patinatzerara joateko irteera antolatu dugu. Izenematea urtarrilaren 24ra arte zabalik. Argibideak Jardunen: 943 76 08 19.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildokindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERGARAN

Polemika, Ipintza iturri-rako bidea itxi zutelako

Ipintza iturri-rako pasabidearen inguruko polemika piztu zen 1995eko urtarrilean. Miguel Altuna institutu berria eraikitzen ari zirela, bidea itxi egin zuten eta Matxiategiko bizilagun talde batek protesta egin zuen. Iturri-rako pasabidea ondasun publikoa izaten jarraitzea aldarrikatzen zuten bizilagunek.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kinkillero”

JOXE MARI
MERKE MERKE



Kinkila saltzen etxez edo azoketan dabilena.

JON IRAEGI

ASTEKO PELIKULAK


‘LA BÚSQUEDA’

ZUZENDARIA: JON TURTELTAUB. **AKTOREAK:** NICOLAS CAGE.

HARIA. Hiru belaunalditan Gates familia altxor batekin obsesio-natuta egon da. AEBetako Independentzia Deklarazioaren agirian ei dago altxoraren mapa...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan. 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



‘CONTRA LA PARED’

ZUZENDARIA: FAITH AKIN. **AKTOREAK:** BIROL UNEL, SIBEL KEKILLI, CATRIN STRIEBECK.

HARIA. Cahitek 40 urte ditu, eta psikiatriko batean dago, bere buruaz beste egiten saiatzeagatik. Sibel gazteak, berriz, bere familiarengandik ihes egin nahi du, eta, horretarako, Cahitekin ezkontzea pentsatuko du. Hainbat sari jasotako filma.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, urtarrilaren 27an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ATREBENTZIAEZPADA/ Udal Liburutegira joateko ohiturarik baduzu?



JAIO MENDIBIL
25 urte

Noizean behin joaten naiz, baina liburuak baino gehiago diskoak hartzen ditut. Hala ere, Bergaran ez dago aukera handirik, eta txartel berriarekin beste liburutegi batzuetan hartuko ditut..



MARIA JESUS QUINTAS
33 urte

Ez naiz liburutegira joaten. Ez naiz ikaslea eta irakurri ere ez dut askorik irakurtzen. Hala ere, irakurketa zaletasun polita da eta niri ere komeniko litzaidake pixka bat irakurtzea.



ERIK GOROSTIAGA
13 urte

Ez, ez naiz askotan joaten. Taldeko lanak egin behar ditugunean, batzuetan ikastolako liburutegira joaten gara. Hala ere, txartel berria egingo dut beste leku batzuetako liburuak hartzeko.



GORKA IRIZAR
14 urte

Ez daukat joateko ohiturarik. Ikasi etxean egiten dut gehienetan eta irakurtzeko ere etxean ditudan liburuekin moldatzen naiz. Beraz, ez dut txartel berria eskatzeko asmorik.



IZARO AMASORRAIN
24 urte

Lehen, ikastera edo liburuak kontsultatzera joaten nintzen, baina orain gutxitan. Txartel berriari buruz ez daukat informazio handirik, baina beharbada egingo dut.



ROSARITO MARTIN
52 urte

Ni neu ez naiz joaten, baina etxekoek sarritan joateko ohitura dute. Batez ere irakurtzeko liburuak hartzera joaten dira. Gainera, txartel berria denek egin dutela uste dut.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GALTZADA-HARRIAK SOLTE Irakurle batek kexa azaldu digu epaitegiaren atzeko Juan Irazabal pasealekuaren egoera dela eta. "Kale horrek galtzada-harriak ditu, baina lotsagarria da orain erdiak baino gehiago bere lekutik kanpo egotea, eta zuloak ere badaude. Gainera, autoek espalo gainean aparkatzen dute eta benetako abentura da oinezkoendako kale hori zeharkatzea", esan digu. /I.A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

Merezi du! kanpaina

Merezi du! kanpaina abian jarri dute, herritarrek euskara erabiltzera animatuz.

KIROLA /8

Bergara-Mondra derbia

Bergara KEko preferente mailako taldeak Mondragonen aurkako derbia jokatu du zapatuan.

KULTURA /11

Organo emanaldia

Loïc Mallie organo jolearen kontzertua izango da zapatuan San Pedro parrokian.

ASTEKODATUA

1.500

ERABILTZAILERIK DITU KZGUNEAK


Irizar jauregiko lehen pisuan dagoen KZgunea Internet hasierako ikastaroak iragarri ditu datozen asteotarako. Gaur egun 1.500 erabiltzaile inguru dauzka Bergarako KZguneak.

BESTEKEKESANA

“Pilotako oroitzapen politenak profesional moduan jokatutako lehen partidua eta nire karreraren

hasiera izan dira. Orduan nuen ilusio gehien eta ez nekien non sartu nintzen, honek nola funtzionatzen duen. Bergaran jokatu nuen lehen partidua 19 urte bete eta handik hilabetera, gutxi gorabehera. Seguru dakidana da Erostarbe II. arekin jokatu nuela. Uste dut Madrid eta Tapiaren aurka izan zela. Lehenengo partiduetan jartzen ninduten. Gero soldadutzako urtea jokatu gabe eman nuen. Binakako lehen txapelketa 26-27 urte nituela jokatu nuen. Garaipenik onena Lejardik eta biok San Mateo torneoko finala irabazi genuenokoa da; urtea ez dut gogoan, baina Titin eta Belokiren aurka izan zen. Partidu gogorrenak, berriz, Astelenan jokatu ditut”.
JOSE MARI ZEZEAGA / Pilotaria
‘El Diario Vasco’/04-01-19

BERAIEKDIÑO/ Jose Angel Mikeo



Hil ala bizi

Hil ala biziko egoera bizi izan zuen Indikoko hainbat herrialdek urte bukaeran. Lehen aldiz, ikusi ahal izan dugu tsunamiak nola irensten zuen aurrean hartzen zuen guztia. Halako ezbeharren aurrean gertatu ohi den bezala laster ekin diogu laguntza bideratzeko ahaleginari, Nazio Batuak, gobernuak, mugarik gabeko erakundeak, eta abarren parte hartzea, deiak zabaldu dira, gure bihotzak hunkitu eta diru bilketa errekorrak lortu nahian.

Teknologiaren erraztasunak jarri dizkigute gure bihotz onak borondaterako bidea aurkitu dezan: telebistako maratoiak, kontu korronteak (edo korronteen kontua, transferentzien zati bat gastuak ordaintzeko hartzen dute eta), telefono mugikor deiak... turroiari hain ginkada egin eta beste eskua erekin laguntza “digitala” eman.

Ia 200.000 lagun hil dira Milaka turistak, herrialde pobreako paradisuak urte berriari hasiera eman nahi zioten-

nak. Ikusi dugu, harrিতuta, nola zebiltzan hurrengo astean, ikaragarrikeria gertatutako hondartzetan, turistak, eguzkia hartuz, hamar metrora hildako bila zebiltzanean.

Harridura! Zerekin? Aurrez ere bost izarreko hotelaren alboan jende arrunta txaboletan bizi zen. Egia da zenbait egoeraz ohartzeko normaletik kanporakoak gertatu behar zaizkigula, baina gure bihotz asaldatu bere onera etortzen denean justiziarako konpromisoak ere behera egingo du, itsasoak bezala, hondakin guztiak hondoratu.

Sri Lankan 30.000 lagun hil dira. Olatua itsas ikara gertatu eta bizpahiru ordura heldu zen. Bitarte horretan telefono dei bat nahikoa zen hildako horietatik dezentz salbatzeko. Parke natural bateko animaliak, zetorrenaz oharturik, ihes egin eta ez ziran ito. Gu, bitartean, turroia jaten eta mugikorrek laguntza eman nahian... Zerbait ez dabil oso ondo lurrarekin lotura hainbestean eten dugunean.

“Teknologiaren erraztasunak jarri dizkigute gure bihotz onak borondaterako bidea aurkitu dezan”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldeg
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILERAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

HIRIGINTZA/ Udalak Dorrearen jabea izaten jarraituko du eta Tavexeko bulegoak bertan kokatzea da hasierako asmoa

Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen ari dira Bergarako Udala eta Tavex enpresako arduradunak

EDU MENDIBIL

Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen ari dira Bergarako Udala eta Tavex enpresa. Hasiera baten bien artean berrituko dute Gabiria Dorrea eta Tavexek San Antonion dituen langileen bulegoak bertan kokatuko dira.

Azken hilabeteotan Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen ari dira Bergarako Udala eta Tavex enpresako ordezkariak. Udaberri aldera Algodonera San Antonioko pabilioiak bertan behera botako dituzte, etxebizitzak egin ahal izateko. Jakingo duzuen bezala, Tavex taldeak Adarra eraikuntza-enpresari saldu zion lursaila, 17.000 m² guztira.

San Antonioko lantegia 1846. urtean jarri zuten abian, eta pabilioi guztiak botako dituzte. Hala ere, bulegoen eraikina mantenduko da. Gaur egun Tavex taldeko 30 langilek dihardute bertan lanean.

TAVEXEKO BULEGOAK DORREAN

Udalaren eta Tavex enpresaren arteko akordioa gauzatzekotan, langile horiek Gabiria Dorrean lan egingo dute etorkizunean. Esan bezala, hasiera baten, Udalaren eta Tavex artean egingo dituzte Gabiria Dorrearen berritze lanak. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak adierazita koaren arabera, administrazio-



Gabiria Dorrea XV. mendekoa da eta Jaurlearitzaen monumentu kualifikatu izendapena dauka.

ak berritze lanen %50 ordainduko du eta beste erdia Tavex enpresak.

Edozein modutan ere, Udalak jarraituko du dorrearen jabea izaten eta Tavexek epe jakin baterako izango du Gabiria Dorrea

erabiltzeko eskubidea. Gaur egun Tavex talde osorako zerbitzuak eskaintzen dira Bergarako bulegoetatik. Besteak beste, komertzial sailak edota erosketenak Bergaran dihardute lanean gaur. Enpresako arduradunek interes

berezia azaldu dute Bergaran bulegoak izaten jarraitzeko. Tavex langileendako ez ezik, hainbat kultur ekitaldi antolatzeko erabiliko dute Gabiria Dorrea. Era berean, ehungintza sektoreak herrian izan duen garrantzia

azaltzeko erakusketa ikusgai jarritzea da Tavexeko arduradunen asmoa.

Gallastegi alkateak zera adierazi dio Berrigarari: "Hitzarrena nahiko garatuta dago eta Udalerako zein Tavex enpresarako interesgarria da akordioa lortzea. Ez dut uste arazorik egongo denik proiektuak aurrera egiteko. Udalaren partetik, behintzat, lehenbailehen ekin nahi diogu proiektu horri". Gabiria Dorrearen berritze lanen proiektua egiteke dago oraindik. Aurrekontua 1.500.000 euro ingurukoa izan daiteke, Udalaren arabera. Hurrengo hilabeteetan Tavex enpresarekin akordioa gauzatzeko itxaropena azaldu du alkateak.

PIZKUNDE ESTILOKO DORREA

Gabiria Dorrea XV. mendekoa da eta monumentu kalifikatu izendapena dauka, Jaurlearitzaen Kultur Sailak ematen duen gorena. Pizkunde estilokoa da dorrea, laukizuzen planta duena eta behe planta eta bi solairu dituena. Gaur egun egoera txarrean dago eta berritze sakona beharrezkoa du. Teilatua ondo badago ere, barrualdean goitik beherako berritzea beharrezkoa izango du. Monumentu kualifikatu izendapena izatean, administrazioaren laguntza jasotzea espero du Udalak.

Urteagako itxierarengatik hango etxeetatik ateratako familia bat bizi da gaur egun Gabiria Dorrean.


Langabeei zuzendutako ikastaroa jarriko dute abian Miguel Altunan

E.M.

Bergarako Miguel Altuna ikastetxeak langabeen kolektiboari zuzendutako ikastaroa antolatu du, Jaurlearitzaen Justizia eta Enplegu Sailarekin lankidetzan.

Aipatutako ikastaroa 695 ordukoa izango da eta, esan bezala, langabezia dauden pertsonen eta bereziki emakume langabeei zuzenduta dago.

Ikastaroa bi zatiz osatuta dago, eta biak ere osagarriak dira: lehenbizikoan tornua (80 ordu), fresagailua (80), artezteko makina zilindrikoko mekanizazioa (30 ordu), artezteko makina laukoko mekanizazioa (30), fabrikazio prozesuak (30), irudikapen grafikoa (50) eta dimentsiozko egiaztapena (40) erakutsiko dira. Ikastaroaren lehen zatiak beraz 340 orduko iraupena izango du.



Besteak beste tornua eta fresagailua landuko dituzte ikastaroan.

IZENEMATEA ZABALIK

Ikastaroaren bigarren zatian, besteak beste, hari eta ezarpen bidezko elektrohidraduraren prestaketa edo ingurumen sentsibilizazioa landuko dira. Otsailean edo

martxoan jarriko dute ikastaroa. Bertan parte hartzeko interesatuek 943 76 70 49 telefono zenbakira edota formakuntza@imaltuna.com helbidera jo dezakete argibide eske.

LABUR

Tranbiaren trazaketaren gaineko alegazioak otsailaren 15era arte aurkezteko aukera

Bergarako udaletxean Bergaratik Eskoriatza bitartean tranbiak izango duen trazaketa dago ikusgai. Herritarrek otsailaren 15era arte izango dute alegazioak aurkezteko aukera.

Udalaren kasuan, bi hilabeteko epea izango du dagozkion alegazioak egin ahal izateko.

Zubietako zaborra erretiratutako edukiontzia ziren lekuan jasoko dute

Infernukuako pasoa itxita dagoen bitartean, zaborra biltzen duen kamioiak ere ez du bertatik pasatzerik izango. Beraz, Zubietako bizilagunek erretiratutako edukiontzia ziren lekuan utzi behar du zaborra, ohiko egunetan.

Astlehenean itxi zuten Infernukuako pasoa, Zubietako eta Mas-terrekan ur kolektoreko lanekin aurrera egiteko.

Debagoieneko Landa Garapen Elkartek plastiko biltzea egingo du martitzenean

Debagoieneko Landa Garapen Elkartek deituta, plastiko biltzea egingo da martitzenean, urriaren 25ean. Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza zein belar boletan eta negutegietan erabiltzen dena batuko dute. Bergaran ondoko tokietan batuko dute: Ugarrizan, Muinondon eta San Juan auzoko eliza aurreko Plazan. Argibideak 943 76 25 47 telefono zenbakian.



Urteagako errepidea 2003ko azaroan itxi zuten.

ARTXIBOA

ERREPIDEAK/ Avaya eta Geofisa enpresek egingo dituzte lanen lehenbiziko fasea

Urteagako lanak otsailean hasiko direla dio Diputazioak

E.M.

Diputazioak aditzera eman duenez, otsailean egingo dituzte Eskusarte harrobian mendi-mazelari eusteko lanak, Urteagan. Aipatutako lanek hainbat atzerapen izan dituzte dagoeneko. Urteagako errepidea 2003ko azaroan itxi zuten.

Hasiera baten urrian hastekoak ziren Urteaga kaleko lanak eta ondoren abendura arte atzeratu zituzten. Diputazioaren arabera, lanen esleipen prozesuak atzeratu du lanen hasiera.

Avaya eta Geofisa enpresek egingo dituzte lanen lehenbiziko fasea. Trenbide zaharrekoi ibil-

bidea eusteko lanak egingo dira lehenbiziko fase horretan. Plataformaren azpian euste-horma bat egitea aurrekusten da. Lanak egingo dituzten puntura heldu ahal izateko partikularrekin negoziatu behar izan du Diputazioak, alde batetik, Bolutik datoren trenbide zaharra ezin delako erabili ur-kolektoreko lanengatik, eta, bestetik, Uzarragako pista luzeegia delako eta nahiko egoera txarrean dagoelako. Lanen lehenbiziko faseak 1,3 milioi euro inguruko aurrekontua dauka.

LAU MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Bigarren faseak mendi-mazelari eustea du helburu. Lursailaren ezaugarriak direla eta, zail-

tasun handiko lana da. Hasiera baten, 2005eko abendurako lanak amaitzea zen Diputazioaren asmoa. Hala ere, izandako atzerapenak direla eta, zaila izango da urtea bukatu baino lehen lanak amaituta egotea. Bigarren fasearen aurrekontua 2,7 milioi euro da.

Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ondoren itxi zuten errepidea 2003ko azaroan. Orduetik Bergaratik Antzuolara joan-etorria egiteko ekialdeko saihe-bidea erabili behar izaten dute gidariek. Itxierarengatik kalte-tutako enpresa eta partikularrek mobilizazioak egin zituzten uztailan, Diputazioak agindutako lanak ez zirelako hasten.

Astelehenean hasita, Internet ikastaroak KZgunean

E.M.

Astelehenetik aurrera, Interneteko hasiera ikastaroak eskainiko dira Irizar jauregiko KZgunean. Ikastaroak 20 ordukoak dira, eta goizez edo arratsaldez egiteko aukera dago. Izenematea zabalik dago KZgunean bertan.

Internet hasiera ikastaroak izango dira aurrerantzean KZgunean. lehenbiziko txanda, esan bezala, astelehenean, hilaren 24an, hasiko da. Interneten nabigatzen eta posta elektronikoa zelan erabili erakutsiko dute, besteak beste. Bideo-konferentziak eta txaten inguruko azalpenak ere eskainiko zaizkie ikasleei. Goizez edo arratsaldez egin ahal izango da ikastaroa: 11:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 18:00etara.

Hurrengo ikastaroa otsailaren 7an izango da. Goizekoa 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez egin nahi dutenendako, 18:00etatik 20:00etara. KZguneko


arduradunen arabera, ordutegiak aldatzen joango dira, ikasleen ordutegiari egokitu ahal izateko.

IKASTAROAK, DOAN

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Irizar jauregiko lehen pisura jo dezakete interesatuek. Edozein argibidetarako 943 76 73 24 telefono zenbakira deitu dezakete.

KZgunea 2002ko azaroan jarri zuten abian eta gaur egun 1.500 erabiltzaile inguru ditu. KZgunearen ordutegia honako hau da: aste barruan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara dago zabalik.

KZgunean ordenagailua erabili ahal izateko fitxa bat betetzea baino ez dute eskatzen. 16 urte-tik gorakoek bakarrik erabili ditzakete bertako ekipoak. Gaur egun 20 ordenagailu dituzte Irizarren. Era berean, argazkiak edo bestelako dokumentuak digitalizatzeko eskaner bat erabiltzeko aukera dago.



LEIRE KORTABARRUA

KZguneak 1.500 erabiltzaile inguru ditu.

Osintxuko zubia egiteko lanak aurrera doaz

E.M.

Osintxuko zubi berria egiteko lanak aurrera doaz. Soraluece enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak uztailaren erdialdean hasi zituen zubia eraikitze-lanak, Gerondo parean. Hasiera baten, lanek bost hilabete iraun behar zuten, baina zertxobait luzatuko dira. Besteak beste, ingurua urbanizatzea eta beste hainbat lan egitea falta da oraindik.


1.200.000 EUROKO AURREKONTUA

Lanak 1.200.000 euro inguruko aurrekontua daukate. Bergarako Udalak eta Soraluece enpresak

2002ko ekainean sinatu zuten hitzarmena. Enpresa handitzearen truke, Soraluece zubi berria eraikitzeko konpromisoa hartu zuen orduan.

Esan bezala, zubi berria Gerondo parean egin dute eta 35 metroko luzera izango du. Oraindik ez dute zehaztu noiz zabalduko duten.

Osintxuko auzotarrek aspalditik aldarrikatu dute zubi berria egitea, tona askoko kamioiak pasatzen direlako Osintxuko elizaren parean dagoen zubi zaharretik. Inguruko enpresetara joateko zubi berritik igaroko dira kamioiak laster.



EDU MENDIBIL

Dagoeneko gutxi falta da zubi berriko lanak amaitzeko.

EUSKARA/ Herriko buzoi guztietan diptiko bat banatuko dute, herritarrak euskara berba egitera animatzeko helburuarekin

Merezi du! kanpaina jarri dute abian, euskara ikastera eta erabiltzera animatuz

E.M.

Jardun euskara elkarteak, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Udaleko Euskara Batzordeak *Merezi du!* izenburuko kanpaina aurkeztu zuten eguaztenean, kultura etxean. Herritarrak euskara erabiltzera animatzea da kanpainaren helburua.

Iñigo Iñurrategi Euskara Batzordeburuak, Oskar Elizburu AEK-ko ordezkariak, Maria Dolores Lete Udal Euskaltegiko zuzendariak, Maripi Laskurain Euskara Zerbitzuko teknikariak eta Amaia Ormaetxea Jardun elkarteak koordinatzaileak hartu zuten parte eguaztenean aurkezpenean.

DIPTIKOA BANATUKO DUTE

Iñigo Iñurrategi azpimarratukoaren arabera, *Merezi du!* kanpainaren helburua herritarrak euskara ikastera animatzea edo euskara dakitenak hobetzera bultzatzea da, "dakigunak berba egitera animatzeko helburuarekin hain zuzen".

Helburu horrekin herriko buzoi guztietan diptiko bat banatuko dute hurrengo egunetan. Aipatutako diptikoan euskaltegiak ikasle eta ikasle ohiak

azaltzen dira, euskara ikastea merezi duela adierazten. Lau lagunek euren esperientziaren berri ematen dute diptikoan, euskaraz eta gazteleraz.

HERRITARRENDAKO LAGUNTZAK

Era berean, euskara ikasteko, dakiguna hobetzeko edota erabiltzeko zenbait aukera eskaintzen dizkiguten erakundeekin harremanetan jartzeko informazioa eskaintzen da bertan.

Esan bezala, herriko bi euskaltegiekin batera, Udaleko Euskara Zerbitzua eta Jardun ditugu kanpainaren bultzatzaileak. Besteak beste, barnetegietan euskara ikasteko edota bestelako euskara ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak ematen ditu Euskara Zerbitzuak. <http://www.bergara.es/Udala/Antolake-ta/Euskara> helbidean edota 943 77 91 66 argibideak jaso ditzakezue.

Jarduni dagokionez, elkarteak antolatutako ekintzetan (ikastaroak, hitzaldiak, emanaldiak, ibilaldiak...) parte hartuta euskaraz jarduteko aukera zabala dagoela azaldu zuen Amaia Ormaetxea. Euskaltegiak ari diren ikasleek aipatutako ekintzetan doan parte hartu ahal izango dutela esan zuen Ormaetxea.




Argazkian, Oskar Elizburu, Maria Dolores Lete, Iñigo Iñurrategi, Maripi Laskurain eta Amaia Ormaetxea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan kokatzen da *Merezi du!* kanpaina. Joan den irailean euskararen erabilera bul-

tzatzeke beste kanpainatxo bat jarri zuten abian., merkatariei, haurren gurasoei eta jarduneko bazkideei zuzenduta hain zuzen.

Bestalde, euskararen erabileraren gaineko datuak otsailean jakitera emango dituztela adierazi zuten eguaztenean.



Jose Serranori agur-afaria eskaini zioten udaltzainek

Bergarako udaltzainek agur afaria eskaini zioten Jose Serrano lankideari joan den abenduaren 16an, Lasai Toki elkartearen. Hamabost lagun inguru elkartu ziren afarian eta primeran afaltzeaz gain, giro ederrean igaro zuten afalosteak. Jose Serranok 33 urte egin ditu udaltzain lanetan eta joan den urriaren 8an erretiratu zen. Bere lankide izandakoen partetik oparitzo bat jaso zuen Serranok, argazkian ikus dezakezuen.

LABUR

Anorexia eta bulimiaren gaineko hitzaldia eguaztenean, hilaren 26an, kultura etxean

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, Agurme Juldain psikologoak eta Garbiñe ACABE elkarteak koordinatzaileak anorexia eta bulimiaren gaineko hitzaldia egingo dute eguaztenean, hilaren 26an, kultura etxean, 18.30ean.

Udal errolda ikusgai izango da Udaletxean, idazkaritzan, urtarrilaren 28ra arte

Bergaran bizi diren hautesleei jakinarazten zaie hautesle-errolda erakusgai egongo idazkaritzan datorren egunera arte, urtarrilak 28ra arte. Interesatuak datuak aztertu eta behar izanez gero erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

Udal Liburutegiko bazkideek txartel berriak jaso ditzakete Errotalde jauregian

Liburutegiko bazkideek txartel berriak jaso ditzakete dagoeneko. Aste barruan 09:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 13:00etara. Euskal Autonomia Erkidegoko katalogo bateratuan izango da aurrerantzean liburutegia.

Hobetz programaren bitartez lagundutako ikastaroak langileentzat, Miguel Altunan

Aurreko urteotan bezala, Miguel Altuna ikastetxeak langileei zuzendutako etengabeko formazio ikastaroak eskaintzen dihardu. Hobetuzen bitartez lagundutako ikastaro hauek doanekoak dira. Ikastaroen gaineko informazioa 943 76 70 49 zenbakian edo formakuntza@imaltuna.com helbidean.

MINGAINARITIRAKA



Iñigo
Zabala

ZABALA OPTIKAKOAK

Farmazia eta Optika ikasketak egin ditu Iñigok, eta orain dela gutxi, ekainean, optika zabaldu zuen. Zabala farmaziako semea da Iñigo, eta farmazian eta optikan, bietan dihardu gaur egun lanean.

Zer aholku emango zeniguke ikusmena zaintzeko?

Alde batetik, noizean behin ikusmenaren azterketa egitea komeni izaten da, eta noski, betaurrekoak dituenak erabili egin behar ditu; dena dela, arazo handienak eguzkitako betaurrekoek sor ditzakete. Oso garrantzitsua da behar bezalako betaurrekoak erostea, optiketan.

Begi asko ikusiko dituzu egunero. Begiek asko komunikatzen ei dute; zeuri zelako begiak gustatzen zaizkizu?

Begi sinpatikoak, irribarre ukitu bat dutenak.

Betaurrekoetan ere modak agintzen du, ezta?

Bai, hala da; eguzkitako betaurrekoen kasuan, handiak daude boladan; bestelakoetan, berriz, denetarikoak daude, baina koloretakoak, batez ere, saltzen ditugu.

Ezinikusirik baduzu?

Bai; adibidez, orain Asian gertatu den hondamendia bezalakoak ikusteak min egiten dit.

Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?

Alde batetik, jendearekin harremanetan egotea; bestetik, berriz, beti zerbait berria ikasteko aukera dudala.

Eta gutxien?

Laneko ordutegia; azken baten, egun osoan, goizez eta arratsaldez egoten gara lanean eta hainbat gauza egiteko aukerarik ez dugu izaten.

Denbora libre laburra duzula esan diguzu, baina daukazunean zer egitea gustatzen zaizu?

Denetik pixka bat: irakurtzea, musika entzutea, igeri egitea...

Liburu bat?

Vagabundo en África, Javier Reverterena.

Musika talde bat?

Jazz klasikoa gustatzen zait, batez ere; gaur egun egiten den jazzaren artean, berriz, jazz latindarra.

Oporretarako toki bat?

Greziara gustura joango nintzateke.

Eta, bukatzeko, amets bat?

Osasuna, guztiondako.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

IGNACIO MORENO

41 URTE / ETXEAK ZAHARBERRITZEN DITU / SORT (LLEIDA)

“Leidako mendi aldeko etxeak, bordak eta baserriak eraberritzen lan egiten dut”

AINTZANE IRIZAR

Sei urte daramatza Ignaciok Sort-en (Lleida) bizi izaten. Horrelaxe azaldu digu nolatan joan zen hara: “Beti-Bustiko kideok askotan etortzen ginen inguru honetara piraguan ibiltzera; baita mendira ere. Horrelaxe ezagutu nuen Sort ingurua; egoten ginen kanpenean lan egitea proposatu zidaten eta nik onartu egin nuen”.

Gauzak horrela, orain dela sei bat urte hara joan zen bizi izatera; hasieran, kanpenean sukaldari hasi zen lanean. Gero, berriz, etxebizitzak eraberritzen hasi zen lanean, eta, denborarekin, bere enpresa txikia sortu zuen. “Sort mendialdean dago eta borda asko dago; bordak, baserriak eta mendiko etxeak eraberritzen lan egiten dugu. Oso lan polita da; asko gustatzen zait diseinatzea, eta, gainera, naturarekin harremanetan gaude; izan ere, mendian edo mendialdean dauden herrixketan ibiltzen gara”, diosku Ignaciok.

Bakarrik bizi den arren, lagun asko egin ditu Ignaciok urte hauetan; harreman politikak egin ditu, eta aurreko astebururako, esaterako, begira ze plan egin zuen: “Lagun batzuek txerria hil zuten, eta han ibili ginen lagun taldea, txorizoak, odolosteak, eta abar egiten”. Dena dela, kataluniarrak, eta batez ere, mendialdeko jendea, nahiko itxia dela esan digu Ignaciok: “Asko kostatzen zaie kanpoko jendearekin harremanak egitea, euskaldunoi baino gehiago”.

Hala ere, argi ikusi ahal izan dugu ondo moldatu dela hango bizimodura eta ondo barneratu dela hango jendearen artean; zeharo harrituta laga gaitu daukan kataluniar azentuak. Katalana ere ikasi duela azaldu digu: “Ez zitzaidan askorik kostatu; gaztelera jakinda, oso erraza da”, diosku.

SORT, LOTERIAREN HERRIA

Gehienok loteriarengatik ezagutzen dugu Sort; orain dela urte

“Bergarara bizi izatera joateko asmorik ez daukat; Bergara hiri handiegia da”

batzuetatik hona, ia urtero egokitu da loteria herrixka horretan. “Niri ez zait sekula egokitu sei urte hauetan; azkeneko urteotan, hala ere, kanpora bidaltzen dituzte txartel gehienak”, azaldu digu Ignaciok.

Aigüestortes eta Estany de Sant Mauriciko Parke Nazionala Sort-etik bertan dago, eta inguru haiek zoragarriak direla kontatu digu Ignaciok. Gai-

nera, berak daukan lanbidearekin, inguruko herrixka ugari ezagutzeko aukera dauka.

ETORKIZUNA, ARGÍ ETA GARBI

Argi dauka Ignaciok zer egin nahi duen etorkizunean. Orain arte bezalaxe jarraitu nahi du, mendialdeko txabolak eta baserriak eraberritzen; ez dauka Bergarara bizi izatera etortzeko batere asmorik, baina, beharbada, Nafarroako Pirinio inguruko herrixkaren batera etorriko dela azaldu digu.

Euskal Herriko hainbat gauruzaren hutsunea nabaritzen duela kontatu digu: alde batetik, hiru urteko alabatxoa dauka Bergaran, eta, hórregatik, ahal duen guztietan etortzen da. Bestalde, hemengo kaleko giroa eta bizi-modua ere gustatzen zaizkio. Dena dela, “hiri handiegia” da berarendako Bergara.



GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

FUTBOLA

Bergarak beharrezkoa du irabaztea, bihar, Mondragonen aurkako derbian

Bergarak etxeko azken bi partiduak irabazi ditu; hala ere, sailkapenean zuloan jarraitzen dute mahoneroek, 18. tokian, 19 punturekin

EDU MENDIBIL

Bergara eta Mondragon taldeen arteko derbia izango da bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Bergarak etxeko azken bi partiduak irabazi ditu eta zulotik ateratzeko hiru puntuak beharrezkoak dituzte mahoneroek. Hala ere, Mondra ez da aurkari erraza izango.

Mondragon taldeak jokaturako azken bi partiduak irabazi ditu, Ordizian (1-2) eta Arrasaten, Oiarzunen aurka (2-1). Sailkapenean zortzigarren tokian dira arrasatearrak, 28 punturekin. Anaitasuna taldearekin batera berdinketa gehien lortu duen taldea da Mondra: hamar partidu berdindu dituzte. Egindako eta jasotako golen artean ere orreka dago: 20 gol egin eta 21 egin dizkiote. Lau partidu besterik ez dute galdu, eta etxekoek gogor egin beharko dute bihar hiru puntuak eskuratzeko.

Igor Gordobil eta Andoni Azkargorta Bergara taldeko entrenatzaileek lau baja izango dituzte: Julen Berraondo, Ander Elkorobereibar, Iñaki Muxika eta Iker Robles atezainak ezin izango dute jokatu, lesionatuta daude-eta. Jon Altzolak, berriz, ezin da ziurtatu jokatu duela.

Esan bezala, Bergarak etxeko azken bi partiduak irabazi ditu: Zestoari eta Touring taldeei emaitza berarekin nagusitu zitzaizkien etxekoek, 2-1. Azken jardunaldian, berriz, Pasaian galdu zuten, 2-1. Pasaia 2-0 aurreratu zen markagailuan eta Josu Zubikarai egin zuen bergararren gola. Bigarren zatian nagusi izan arren,



ARTXIBOA

Etxean jokaturako azken bi partiduak irabazi dituzte bergarrek.

Mondragon taldea sailkapeneko 8. tokian dago: lau partidu besterik ez du galdu

Gordobil eta Azkargortaren jokariak ez ziren gauza izan berdinketa lortzeko.

Biharko partiduari begira Andoni Azkargortaren iritzia jaso dugu: "Azkenaldian nahiko ondo jokatu dugu etxean eta gogoz gaude bihar partidu ona egin eta hiru puntuak eskuratzeko. Badakigu Mondra gainditzea ez dela erraza izango, bala da onean direlako arrasatearrak, baina derbia irabazteko ahalegin

guztiak egingo ditugu, taldea konfiantza hartzen ari da-eta.

BI PARTIDU IPINTZAN

Zapatuan beste bi partidu jokatuko dira: infantil mailako futbol-8ko taldeak Urki izango du bisitari, 11:00etan, eta senior mailako nesken taldeak Aloña Mendiren aurka jokatuko du, 18:00etan.

BI ESKUBALOI PARTIDU KIROLDEGIAN

Bestalde, Bergara KEko eskubaloi saileko bi taldek etxean jokatuko dute domekan. Kadete mailako mutilen taldeak Urolaren aurka neurtuko ditu indarrak Labegaraietako kiroldegian, 10:30ean, eta ondoren, Gipuzkoako ligan lehiatzen ari den senior mailako bigarren taldeak Aloñaren aurkako derbia izango du, 12:15etan hasita.

INA DOBAO/MONDRAGON TALDEKO JOKALARIA

"Penaz nago biharko partidua ezin izango dudalako jokatu, derbiak bereziak direlako"

E.M.

Ina Dobao bergararrak (23 urte) Mondragon futbol taldean dihardu. Joaneko partiduan (3-0) bi gol egin zituen Bergarari, Atxabalpen. Hala ere, bihar ez du jokatzetik izango, sorbaldan min hartuta dago-eta.



ARTXIBOA

Azken partiduetan ez duzu jokatzetik izan...

Orain dela bi hilabete inguru sorbaldan atera zitzaizkidan, Zarautzen aurkako partiduan, eta ordutik hona ez dut jokatu. Ez zait gutiz osatu oraindik, eta ez dakit aurtengo denboraldian berriro jokatzetik izango dudana...

Elgoibarrekin hirugarren mailara igo ondoren, udan Mondrak fitxatu zintuen.

Beste aurrelari bat ekartzea erabaki zuten Elgoibarko teknikariek, eta, jokatzeko gaitz ikusten nuenez, alde egitea erabaki nuen. Aretxabaletan eta Arrasaten eskaintzak izan nituen, eta Arrasatekoak konbentzitu ninduen gehien. Gustura nabil. Lesioa izan arte dezente jokatu dut, eta taldea nahiko ondo dabil.

Joaneko partiduan bi gol egin zenizkion Bergarari...

Aurre denboraldian 3-0 galdu genuen Agorrosinen, baina ligan dena ondo atera zitzaigun.

Gainera, bi gol egin nituen, denboraldian lortu ditudan bakarrak. Aloñarekin ere golak eginak nizkion Bergarari. Bihar ezin izango da izan... Penaz nago partidua galtzeagatik, derbiak bereziak direlako.

Zer gertatzen zaio Bergarari horren gaizki ibiltzeko?

Talde gaztea dute eta entrenatzailea ere berria da. Taldea egiteak denbora eskatzen du. Hala ere, konfiantza nago zulotik aterako direla.

Begarako kamisetarekin ikusiko zaitugu datorren urtean?

Gustura etorriko nintzateke...

Euskal Mendizale Federazioak Unai Perez de Arenaza saritu du

E.M.


Unai Perez de Arenaza mendizale bergararrak Euskal Mendizale Federazioaren Andres Espinosa saria jasotzeko zen atzo, eguena, Tolosan. Urteko alpinismo jarduera onenarengatik saritu dute Unai.

Oriol Varo katalanarekin batera, Unai Perez de Arenazak bide berria ireki zuen Shisha Pangman (8.013 m) joan den irailaren 27an. Shisha Pangmako ipar aurpegian egin gabe zegoen korridore bat zabaldu zuten. Mila metro inguruko korridorea da, zuzen-zuzenean erdiko gailurreira irteten dena eta 60-70 gradu

bitarteko malda duena. Bi mendizaleek Vall de Boiko Udalaren babesarekin egin zuten espedizioa eta Vall de Boi izenarekin bataiatu zuten bide berria. Urriaren 3an Shisha Pangmako gailurra zapaldu zuten Iñaki Alvarez, Ibon Azkune eta Jesus Mari Erratzu gipuzkoarrek bide beretik.

URTEKO ALPINISMO JARDUERA ONENA

Unai Perez de Arenaza bergararrak 29 urte ditu eta Lleidan (Katalunia) bizi da azken urteotan. Atzo, Tolosako Leidor aretoan Euskal Mendizale Federazioaren Andres Espinosa saria jasotzeko zen. Urteko alpinismo jarduera onena Unairena izan dela erabaki zuen epaimahaiak.



ARTXIBOA

Unai Perez de Arenaza.

TXIRRINDULARITZA

Aurtengo lizentziak berritzeko epea urtarrilaren 31ra arte izango da zabalik

Txirrindularitza lizentzia berritu nahi dutenek 92 euro ordaindu beharko dituzte Kutxako ondoko kontuan: 2101 0070 81 0006 7526 12. Ondoren, ordainagiria Biciprecision Igartua edo i2 kirol dendetara eraman behar da, urtarrilaren 31 baino lehen.

Begarako Txirrinduzale Elkarteak martxo erdialdera hasiko du denboraldi berria.

ESKIA

Urtarrilaren 28tik 30era Formigalen eskiatzeko irteera antolatu du Pol-Polek

Pol-Pol Mendizale Taldeak urtarrilaren 28tik 30era bitartean Formigalera joateko irteera antolatu du. Izenematea zabalik dago Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era.

Bestalde, hurrengo hilabeteetan ere izango dira eskiatzera joateko irteerak: otsailaren 25etik 27ra Formigalera, martxoaren 4tik 6ra Baqueirara eta martxoaren 25etik apirilaren 2ra Alpeetara (tokia zehazteke dago oraindik). Edozein argibidetarako Pol-Poleko bulegora edota 943 76 48 51 telefonora jo dezakezue.

XAKEA

Bergarako Xake Taldekoak bigarren mailan lehiatuko dira aurten

Zapatuan ekin zioten denboraldiari: A taldeak Easori irabazi zion eta B taldeak galdu egin zuen Arrasaten

EDU MENDIBIL

Bergarako Xake Taldeak denboraldia hasi zuen zapatuan. Gipuzkoako bigarren mailan lehiatuko dira Bergarako bi taldeak: zapatuan A taldeko Miguel Angel Muela, Andres Diez, Alberto Elgezua eta Ruben Gonzalezek 2,5-1,5eko emaitzarekin irabazi zioten Easo taldeari, Bergaran. B taldeak, berriz, galdu egin zuen Arrasaten, emaitza berarekin. Bergara ordezkatzuz, Hodei Agirre, Juan Manuel Garcia, Beñat Labaien eta Alex Muelak jokatu zuten Arrasaten. Horiez gain, Miguel Barquerok jardungo du B taldean. Ignacio Ugartek A taldearekin jokatu du.

Etxeko partidak Zabalotegin duten lokalean jokatzeko dituzte bergararrek, zapatuetan

Bigarren mailan bi multzo dira (hamabina talderekin) eta Bergarako talde biak multzo berean daude. Beraz, elkarren aurka jokatu beharko dute, otsailaren bukaeran.

HELBURUA MAILAZ IGOTZEA

Hamar bat urtez lehen mailan aritu ostean, A taldea mailaz jaitzi zen aurreko denboraldian. Kategoria berreskuratzea da bergararren asmoa. Andres Diez dugu elkarteko presidentea eta jokalaririk beteranoetakoa. 1960ko hamarkadaren bukaeran hasi zen jokatzeko eta 1972an Gipuzkoako gazte mailako txapelduna izan zen. Zera adierazi digu Andresek: "Taldea 1960. urtearen inguruan sortu zen eta 1978. urtera arte-edo maila benetan bikaina izan zuen Bergarak. Duela sei bat urte, berriz, jendea lortzeko nahiko estu ibili ginen, baina orain ondo gabiltza. Ea mailaz igotzen garen aurten... B taldeak ere aukerak izan ditzake, maila oneko jende gaztea dabil-eta".

Etxeko partidak Zabalotegin duten lokalean jokatzeko dituzte.



XAKE TALDEA

Argazkian, Ruben Gonzalez, Andres Diez, Alberto Elgezua eta Miguel Angel Muela.

Partidek lau ordu inguruko iraupena izaten dute eta norgehiagoka amaitutakoan partidak analizatzen benetan gozatzen dutela diosku Andresek. Taldea zabalik

dago xakean jokatu nahi duten guztiendako. Aste bukaeran Bergarako bi taldeek Donostian jokatu dute, Grosen aurka biek ere.

TRIATLOIA

Antxintxika Triatloi Taldeak lizentziak berritzeko deia

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldea hasi da denboraldia gertatzen. Taldera hurbildu nahi duten guztiak 660 52 95 16 telefonora (Aitor Rementeria) dei dezakete argibide eske. Lizentziak berritzen hasita dira triatloizaleak.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-Pirulotarrak ... Fac
10:30: Fac-Komando Piperrak ... Niu Tim
11:30: PDS-Niu Tim ... K. Piper.
16:00: A Ze Flaxa-Cosa Nostra ... All Blacks
17:00: All Blacks-Egurte ... Brescia
18:00: Brescia-Pagomendi ... Kalaveras
19:00: Ganbara-Kalaveras ... Bayer
20:00: Bayer-Irubide ... Ganbara

DOMEKAN, KANPOAN


10:00: Belengua-Txipiron ... Errotag.
11:00: Errotag-A Ze Flaxa ... Belengua

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Agirrebeña-Fit ... De Resa.
17:00: De Resa-Fit Automoc. ... KMP
18:00: SDTNT-KMP ... All Blacks
19:00: All Blacks-Fac ... Arrano
20:00: Arrano-Mongatxurak ... Fac



Aro berria, erakusketa berria.



FAGOR

jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:

San Martin Osasundegia
Ramon M^a Lili 2

Tel.: 943 76 59 39



Merezi al du euskara ikastea?

M^a CARMEN MONTES

Bai horixe!
Euskara hizkuntza parega-
bea (bakarra) da. Nire
semea eta biok zorioneko-
ak gara ikasi ahal dugulako.
Guk ahal badugu,
zuk zergatik ez?



Lizentziatua. Galiziarra, Sanxenokoa.
Duela urte eta erdi etorri zen Bergarara eta
etorri bezain laster hasi zen euskara ikasten.

XOAN SABAJANAS

Euskara ikastea polita da. Alde
batetik, hain zaharra den hizkuntza
ez galtzeko eta, bestalde, euskara-
ren bitartez hemengo jendea hobe-
to ezagutu eta euskal kulturari eta
herriarekin guztiz integratzea lortzen
delako merezi du euskara ikastea.



Hargina. Orain dela 4 urte Pontevedratik
Euskal Herrira etorri eta aurten hasi da eus-
kara ikasten.

Merezi duela uste baduzu,
badakizu non gauden:



Udal Euskaltegia
Zabalotegi 13
Tel.: 943 76 44 53



Akulu. AEK Euskaltegia
Masterreka 13
Tel.: 943 76 05 18

NORA PALMITANO

Soinu polita duen abesti
horren hitzak ulertzea merezi du?
Norbaiten hitzek amodioa,
gorrotoa, damua, goxotasuna,
haserrea, elkartasuna, etsipe-
na,... adierazten duten jakitea
merezi al du? Eta ulertzen
diogula erantzuten jakitea?
Negarrez diharduen umeak
dioena ulertzea merezi al du?
Eta lagunduko diogula esan
ahal izatea?



Euskara teknikaria. Argentinatik etorri, euska-
ra ikasi eta euskara irakasle ere ibilia.

ARRATE BENGOA

Zalantza bank bai. Ni euskaldun-
zaharra naiz, baina nire euskara
hobetzeko premia sentitzen dut;
arlotan guztietan, gainera: ahozko-
an, idatzian, lanean, etxean...
Arlo guztietarako iruditzen zait
komenigarria



Pediatra. Eibartarra. EGA ikastaroa egiten
dihardu.

Kaipainaren laguntzaileak:



Bergarako Udala
Euskara Batzordea
Tel.: 943 77 91 66



Jardun
Euskara Elkarte
Tel.: 943 76 36 61

KONTZERTUA/Organo Erromantikoaren zikloko bigarren emanaldia

Loïc Mallie organo jolearen kontzertua bihar San Pedron

IRATI AGIRREAZALDEGI

Inprobisazioan oinarritutako kontzertua eskainiko du bihar Loïc Mallie organo joleak San Pedro parrokiaren Organo Erromantikoaren Zikloko bigarren emanaldia izango da. Hurrengo bi asteburuetan ere izango dira organo kontzertuak Bergaran.

Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan bigarren kontzertua izango da Bergaran bihar, zapatua. San Pedro parrokiaren egingo du emanaldia Loïc Mallie organo joleak 20:00etan.

Loïc Mallie organo jolea La Baulen jaio zen eta oso gaztetatik hasi zen musikan. Musikan lizentziatu ostean, Parisko kontserbatorioan jarraitu zituen ikasketak, eta baita hainbat sari eskuratu ere. Inprobisazio ikastaro askotan parte hartutakoa da eta gaur egun Musikeneko inprobisazio irakaslea da hura. Inprobisazioan ez ezik konposizioan ere lan handia egin du Loïc Mallie organo joleak. Bergarako munduan zehar ematen dituen kontzertu ugarien artean beste bat izango da.

LAU PIEZA

Begarako emanaldian lau pieza eskainiko ditu betiere inprobisazioan oinarrituta. Preludium eta fuga estilo klasikoan; intermezzo estilo erromantikoan; pieza librea estilo inpresionistan; eta



Orain dela urte batzuk ere San Pedroko organoa jo zuen Malliek.

Loïc Mallie organo joleak lau pieza eskainiko ditu, inprobisazioan oinarrituta

amaitzeko euskal abesti baten gaineko inprobisazioa.

Begararen Organo Erromantikoaren Zikloaren hurrengo kontzertua urtarrilaren 29an izango da, eta Jürgen Wolf-ek joko du organoa. Otsailaren 5ean, berriz, Coro Saenzek eta Migel Etxeparek organo eta tronpetaren emanaldia eskainiko dute.

Maria Victoria Medranoren margolanak ikusgai Kultur Etxean

I.A.

Gaur, urtarrilak 21, zabaldu dute Bergarako Kultur etxean Maria Victoria Medranoren pintura erakusketa. Margolari donostiarraren lanekin batera Enrika Zorloniren eskulturak ere ipiniko dituzte ikusgai. Erakusketa hilaren 31ra arte egongo da zabalik.

Maria Victoria Medranok 15 urte inguru daramatza margolari lanetan eta urte horietan egindako 40 koadro inguru ekarriko ditu Bergarara. Gehienak aire librean egindakoak dira. "Gogokoago dut kanpoan margotu barruan baino. Hori dela eta, aire libreko pintura lehiaketetan hartzen dut parte. Bergaran erakusgai ipiniko ditudan koadro gehienak lehiaketa horietan egindakoak dira".

ESKULTURAK

Horiekin batera modelo biluzietan oinarrituz egindako lanak



Aire librean egindako margolanak egongo dira batez ere erakusketan.

ikusitako ahal izango dira; baita Enrika Zorloni eskulturagile italiarraren lan batzuk ere.

Erakusketa urtarrilaren 21ean zabaldu eta 30era arte egon-

go da ikusgai Kultur Etxean. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara; eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

KULTURAPILULAK

El Trono de Judas talde iruindarraren punk eta hardcore doinuak bihar gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. El Trono de Judas talde iruindarraren punk eta hardcore doinuak eskainiko ditu. Bertan, besteak beste, El Sonido de la Metralla euren azken laneko abestiak joko dituzte. Gizarte gaiak lantzen dituzte euren kantuetan; salaketa abestiak dira gehienak. Kontzerturako sarrera hiru euro izango da.

Jim TNT, Aby-Kem, Denial eta Darkness By Oath taldeak gaur gauean Jam aretoan

Ibarreko lau taldek kontzertua eskainiko dute gaur gauean Jam aretoan. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak bost euro balio du. Arrasateko Jim TNTren rock eta folk amerikar doinuak, herri bereko Denial taldearen death metal melodikoa, Bergarako Aby-kem-en abestiak eta Eskoriatzako Darkness By Oath taldearen entzun ahal izango dira bertan.

Udal Musika Bandak urteko lehen kontzertua domekan egingo du, frontoian

Urteko lehen kontzertua egingo du pilotalekuan Musika Bandak domekan. Kontzertua 12:30ean hasiko da eta honako bost piezak joko dituzte: *Campo de rosas* M. Gonzalez Bastidaren pasodoblea; *Caballeria ligera* F.von Supperen obertura; *Fliskornio* eta bandarendako J.Hadermann-en *Rendezvous*; J.de Haan-en *Oregon*; eta J. Guerreroren *El huesped del sevillano* zarzuelako *Lagarteranas*.

Markeliñek Jamen umeendako antzezlanaren egingo du domeka arratsaldean

Igandeetan piratek jai antzezlanaren egingo du Markeliñe taldeak domekan Jam aretoan. 18:00etan hasiko den emanaldia umeendako izango da. Piraten abenturak kontatuko dituzte Markeliñekoek ikuskizunean. Ikuslea abentura horietan murgilaraziko dute neskatoren begietatik jolasaren bitartez eta imajinazioa erabiliz.

Amodiozko 42 SMS mezu jaso dituzte aurten Jardun elkarteak antolatutako lehiaketan

Jardunek amodiozko gutunen lehiaketaz gain, SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa ere egin du azken urteotan. Zapatuan amaitu zen mezuak bidaltzeko epea eta guztira 42 jaso dituzte. Gutun irabazlearekin batera jasoko du saria SMS mezuen lehiaketako irabazleak San Valentin egunean.

San Paulo eta San Bixente jaiak Uberan eta Angiozarren

I.A.

San Paulo eta San Bixente egunak direla eta, santuen omenez ospakizunak egingo dituzte datozten egunotan Ubera eta Angiozarrean.

San Bixente eguna gaur bada ere, urtarrilaren 23an egingo dituzte ospakizunak Angiozarko Parteitti auzoan.

Domekan meza izango da 12:00etan eta mezaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dute. Bide batez, Arrasateko Kataide txakolindegiko txakolina dastatzeko aukera egongo da bertan. Inguruotan dagoen txakolindegiko bakarra izanik dastatzea arrakastatsua izan ohi da. Hori guztia erromeria giroan egingo dute Angiozarko trikitilarietan.

UBERAN MARTITZENEAN HASITA

San Paulo jaiak datorren astean ospatuko dituzte Uberan. Martitzenean eta eguaztenean 11:00etan meza nagusia izango da eta mezaren ostean auzokoendako salda eta txorizoa banatuko dute.

Urtarrilaren 28an, egubakoitzean, bakailao jana egingo dute auzoko elkarteak 21:00etan. Afa-lostea trikitilarietako giroa dute. Afarirako izena emateko azken eguna urtarrilaren 23a izango da. Interesatuak elkartera bertara jo beharko dute.

Ekitaldi nagusiak, berriz, datorren zapatuan izango dira: patata tortilla lehiaketa, mus txapelketa, kukainak eta txokolate jana, besteak beste. Domekarako meza eta dantza erakustaldia dardar iragarrita.



BERGARA-MONDRA

Bergararren eta arrasatearren arteko derbia Goitbn

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

BERGARA-MONDRA
Laguntzaileak:
Amets, Basati, Iamai Kafe Antzokia, Irati, Iturriotz, Itzala, Monte,
Okorotegi eta Pol Pol.

Zapatuan, urtarrilaren 22an
Agorrosin futbol zelaietan, 16:00ean.
20:00ean GOITBn

ELKARRIZKETA

ARANTZAZU LIZARRALDE/ESKULAN IKASTAROKO IRAKASLEA

“Adinekoendako terapia bat da jostea”

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Joxepe elkartearen hainbat ikastaro egiten dituzte urtean zehar. Eskularen ikastaroan, josten jarduten dute batik bat. Irakasle lanak Oñatiko Arantzazu Lizarralde egiten ditu, eta hark eman digu ikastaroaren berri.

Zein eratako eskulanak egiten dituzue ikastaroan?

Orratzekin eta hariekin egiten dugu lan, josten jarduten dugu hainbat teknika landuta: gurutze puntua, gakorraz-lanak, *hardanger*, Norvegiako puntua, puntu erdia, *mallorquina*... Bainikekin gortina asko egiten ditugu. **Josteko lanez gain, beste eskulanik egiten duzue?**

Gure taldean ez. Teknikak aldatzen dira eta baita egiten ditugun gauzak ere (toailak, mantelak...), baina betiere orratzekin. Bada beste talde bat pintura lantzen duena, baina bestelako eskulanik ez da egiten hemen. Orain ez behintzat.

Beraz, taldeko guztiok ez duzue aldi berean gauza bera egiten, ezta?

Ez. Nik ez ditut ikasleak behartzen gauza zehatz bat egitera, edo teknika konkretu bat erabiltzera. Bakoitzak nahi duen eskulana egiten du. Alde horretatik nahiko askatasun dute. **Zein da zure lana irakasle modura?**

Taldea koordinatzea eta ikasleei lan bakoitza hasten laguntzea da nire eginbehar nagusia. Ondoren, zailtasunen bat izanez gero, nik argibideak ematen dizkiet Horretarako, hainbat teknikaren gaineko aldizkariak erabiltzen ditugu.

Aspalditik diharduzu ikastaroak ematen?

Denda izan nuen eta hariak, orratzak eta horrelakoak saltzen nituen bertan, eta orduan ikasi nuen. Orain ere astean behin joaten naiz Legazpira ikastaro batera. Irakasle modura Oñatin bi egunean ematen ditut eskolak, hemen, San Joxepe elkartearen martitzenetan eta orain Olaba-



ARGAZKILARIA

“San Joxepen 15 laguneko taldea elkartzen gara eta bakoitzak nahi duen eskulana egiten du”

rrin ere hasiko naiz. Oñatin emakume gazteagoak ere etortzen dira, baina gainontzean adineko jendearekin egiten dut lan.

Zenbat lagun zaudete taldean?

Taldea 15 lagunek osatzen dugu eta denak emakumezkoak dira. Bigarren urtea da hemen ikastaroak ematen ditudala eta aurrez Oñatin ere jardundakoa naiz, eta ez da sekula gizonzko-rik etorri eskoletara.

Nola animatzen dira adineko emakumeak horrelako ikastaroetan parte hartzera?

“Ikastaroak ematen dihardudanetik ez da gizonzko-rik etorri nire eskoletara”

Batak besteari esan eta horrela etortzen direla uste dut. Euren dako terapia moduko zerbait da. Etxetik irten, taldeko lagunekin berbetan jardun eta egunerokotasunetik ihes egiteko modu bat ere badela esango nuke.

Hemen egindako eskulanekin zer egiten duzue?

Urtean behin, Hamabostaldi Kulturean, erakusketa egoten da eta bertan ipintzen ditugu ikusgai lanak. Batzuek oparitu ere egiten dituzte: toailak, mantelak... etxekoei eta lagunei.

LABUR

Gabonetan San Joxepe elkartearen zozketatu ziren bi otarrek badute jabea

Gabonetan bi saski zozketatu zituzten San Joxepe erretiratuen elkartearen. Bat Gabon eguna baino lehen zozketatu zen eta bestea Erregetan. Lehenengo saskia Osintxuko Jose Gantxegik eskuratu zuen, hark baitzeukan 600 zenbakidun txartela. Bigarrena, berriz, Arrasaten bizi den Isidoro Mateosendako izan zen. Hark 139 zenbakidun txartela erosi zuen. Elkarteko zuzendaritzakoek zozketa txartelak erosi zituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

Zuzendaritzarako kide berriak aurkezteko epea zabalik dago erretiratuen elkartearen

San Joxepe elkarteko zuzendaritzako kideek jakinarazi dutenez, apirilerako zuzendaritza berria osatu behar dute. Hori dela eta, elkarteko bazkide guztiei laguntza eskatu nahi diete. Horretarako zuzendaritzan parte hartu nahi duten bazkideek izena eman behar dute otsailaren 28a baino lehen. Interesatuak egungo zuzendaritzako kide engana jo dezakete.

San Joxepeko ikastaroak

Urtea hastearrekin batera San Joxepe elkartearen abian ipini dituzte hainbat ikastaro. Erretiratuek ikastaro hauetan izena eman eta euren denbora gustuko duten ekintzetan parte hartuz beteko dute. Interesatuak elkarteko idazkaritzan eman dezakete izena.

SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA IKASTAROA

Astelehenetan eta eguaztenetan 10:00etatik 11:00etara
Martitzenetan eta eguenetan:
10:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 12:00etara.

YOGA IKASTAROA

Astelehena eta eguaztena 11:00etatik 12:30era

PINTURA IKASTAROA

Egubakoitzetan 15:00etatik 19:00etara

ABESBATZA

Asteazkenetan 17:00etatik 18:30era

Oharra: Aipatutako ikastaro horiez gain, adinekoendako informatika eskolak ere antolatzen dituzte urtero San Joxepekoek. Oraindik, ordea, zehaztu gabe dago ikastaro horien ordutegia, ezta noiz hasiko diren ere.



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ariznoa kalea zenak XVI. mendean bizi izan zen pertsona baten izena darama. Nor zen hura eta zein haren izengoitia? "Cabeza de Vaca", "Adelantado Irala" ala "Capitan Vergara"?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|--|---|
| <p>1.
Zenbat erabiltzaile inguru ditu Irizar jauregiko KZguneak?</p> <p>A/ 2.200.
B/ 1.500.
C/ 3.000.</p> | <p>2.
Aurreko denboraldian zein taldetan aritu zen Ina Dobao futbol jokalaria?</p> <p>A/ Pasaia.
B/ Aloña Mendi.
C/ Elgoibar.</p> | <p>3.
Zein da Markeliñe taldeak domekan Jam aretoan antzetzuko duen lana?</p> <p>A/ Galtzerdia.
B/ Xola eta ni.
C/ Igandeetan piratek jai.</p> |
|--|--|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

OLAITZ AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Olaitz! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: Mizpildi kalean. / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Bonka kafea

Italiar estilora, 250 g

1 €

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Azkoitiko zalduntxoak izena hartu zuen taldearekin solasaldiak antolatzen hasi zen

BERGARAROSPETSUAK

Xabier Maria Munibe (1)

KOLDO PEREIRA

Gipuzkoako pertsonaia ezagun hau 1729ko urriaren 23an jaio zen, Azkoitian. Gizarte-maila goreneko mutila zen, baina garai hartan gizarteko estamentuak zorrotz banatuta zeuden arren, Azkoitiko jesuiten ikastetxean egin zituen lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak. Zientziak eta Humanitateak landu zituen Tolosan (Frantzia), irakasle bikainekin. 1747an Areizagako baroien alabarekin ezkondu zen, Oñatin. Azkoitiko alkate, Gipuzkoako ahaldu nagusia eta gorteetako diputatu izan zen. Bihotz-bihotzean zuen bere probintzia, jo eta ke jardun zuen gipuzkoarren bizi-maila hobetzeko.

1756. urte aldera "solasaldi akademikoak" antolatzen hasi zen gerora "Azkoitiko zalduntxoak" izena hartu zuten lagun batzuekin. Muniberekin batera Manuel Ignazio Altuna eta Joakin Egia, Narrosko markesa, elkartzten ziren solasaldi haietan. Gai ugari jorratzen zituzten, hala nola, zientziak, humanitateak, filosofia eta musika, eta era askotako tresna eta makinak probatzen zituzten, kondeak bere ideia eta egitasmoak azaltzen zituen bitartean.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53


Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Azeri ehizan ibili ondoren, 1969. urtean

Ehiza garaian gaude, eta garai horrekin bat eginez, Antzuolako ehiztari talde batek ateratako erretratu zahar bat dakarkizuegu oraingo astean, 1969. urte inguruan ateratakoa, hain zuzen ere.

Lagun talde hau azeriak ehizara joateko elkartu zen; Antzuola inguruan ibili ziren ehizan, eta, argazkian ikus dezakegun moduan, hiru azeri, behintzat, harrapatu zituzten egun hartan. Jose Migel Agirrek, Joxe Muxikak eta Diego Rajadok dituzte azeriak eskuetan. Argazkian ageri den txakurraren izenik, berriz, ez dakigu.

Plazatik Ondarrerako bidean, Ongi-Etorri jatetxearen atzeko aldean atera zuten argazkia.

Hona hemen argazkian azaltzen diren ehiztariak:

Zutik, ezkerretik eskumara, honako hauek ikus ditzakegu: Tiburcio Larrañaga, Eladio Garcia, Xanti Zabaleta, Jose Mari Eguren, Patxi Garitano, Pedro Etxaniz, Jose Zabaleta, Jose Miguel Agirre (azeriarekin), Jose Luis Arregi eta Alejandro Muxika.

Makurtuta, berriz, ezkerretik eskumara, honako ehiztariak azaltzen dira: Jose Luis Unamuno *Aldai*, Joxe Muxika (azeria eskuan duela), Cesareo Barrena, Bittor Berraondo, Diego Rajado (azeriarekin) eta Meltxor Legorburu.

Argazkia: Jose Luis Arregi



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak Era guztietako moldurak
Sarrailak Apalak
Heldulekuak Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005ko urtarrilaren 21a / 219. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Argiteria sistema berria jarri dute futbol zelaian

AINTZANE IRIZAR

Estala futbol zelaian eta harako bidean argiteria sistema berria jarri du Udalak. Aurreko astea ezker dago martxan sistema berri hori; horrela, aurrerantzean edozein herritarrek aukera izango du Estalarako bideko argiak pizteko, baita futbol zelaiko bertako argiak pizteko ere.

Orain arte futbol jokalariek eta Antzuola Kirol Elkarteko arduradunek bakarrik zuten Estalarako bideko eta futbol zelaiko argiak pizteko aukera.

Udalak, baina, aukera hori herritar guztiei zabaldu nahi izan die, eta horretarako, argiteria sistema berri du.

Gauzak horrela, Estalarako bideko argiak piztu ahal izateko, hilerri ondoan jarri dute etengailu edo interruptorea. Sakatzen dugunetik 15 minutuz egongo dira farolak piztuta; ondoren, itzali egingo dira. Goitik behera etorri ahal izateko, berriz, futbol zelaiko aldagelen eraikinean, kanpoko horman dago etengailua.



Futbol zelaiko argiak edozein herritarrek pizteko aukera izango du aurrerantzean.

Orain arte AKE-ko kideek bakarrik zuten Estalako eta bideko argiak pizteko aukera

FUTBOL ZELAIAN ERE ARGIAK

Estala futbol zelaiko bertako argiak pizteko aukera ere izango dugu aurrerantzean. Aldagelen eraikineko horman dago horretarako etengailua ere. Estalako argiak bi orduz egongo dira piz-

tuta; denbora hori pasatuta, automatikoki itzaliko dira futbol zelai-ko farolak.

Era horretan, Udalak herriko kirolari eta pasean ibiltzen diren guztiei futbol zelaia erabiltzeko aukera eman nahi izan die.

LABUR

“600 euro baietz!” ekimeneko arduradunak datorren astean hasiko dira dirua batzen

Patxi Cabori etxebizitzaren mailegua ordaintzen laguntzeko antolatutako zuten bere lagunek *600 euro baietz!* izeneko ekimena, eta datorren astean hasiko dira dirua batzen. Aipatzekoa da, bestalde, hileren 24an ekarriko dutela Patxi Arrasatera, medikuarengana.

HIRIGINTZA

Beheko Auzokoek kartelak jarri dituzte

A.I.

Beheko Auzoko bizilagunek *Denon artean erabakitze*ko. *Mortoria orain* dioten kartelak jarri dituzte balkoi eta leihoetan.

Era horretan, auzotarrek eskatu nahi dute Udalak esku artean dituen proiektuen gaineko erabakiak hartu aurretik, herritarren iritzia kontuan har-

dezala. Beheko Auzoan, plaza gorrian, etxebizitzak egitea eta Sagastin, berriz, Kultura eta Gizarte Etxea egitea zehazten dituzte Udalaren proiektu horiek.

Auzotarrek zera adierazi digute: “Gauzak beste era batera egiteko behar direla esan nahi diogu Udalari; horrelako proiektu garrantzitsuen aurrean, denon iritzia kontuan hartu behar dela”.



Aurreko astea ezker daude kartelak Beheko Auzoko balkoi eta leihoetan.

AITZ-GARBI



Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51 ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA Tf. 943 76 64 34

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94 ANTZUOLA



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

ELKARRIZKETA

ANDRES GARCIA/BUDO-TAIJUTSU IRAKASLEA

“Budo-taijutsuk geure burua defenditzeko baliabide garrantzitsuak ematen dizkigu”

A.I.

Budo-taijutsu arte martzial ikastaroa hasiko dute otsailaren lean. Oraingo hilabeteko has-tapen ikastaroa egingo dute. Hilaren 27ra arte dago izena emateko epea, udaletxean. Andres irakaslearekin berba egin dugu.

Budo-taijutsu zer eratako arte martziala da?

Japonen du jatorria, eta gura-soengandik seme-alabetara pasatuz joan da; hain ezagunak egin ziren ninjek egiten zuren antzerako arte martziala da.

Zeini zuzenduta dago ikastaroa?

Oso oinarrizkoa izango da, hortaz, interesa duen edonondako egokia izango da. Dena dela, ume txikiendako ez da aproposa, ez luketelako behar bezala ulertuko arte martzial horren funtsa, oinarria, kontzeptua zein den.

Zein da, bada, oinarri hori?

Defentsa pertsonalerako artea


da, ez du biolentzia sustatu nahi, ezta gutxiago ere. Baina, era berean, ez da jolas bat, hori baino askoz serioagoa da.

Zer onura ekartzen dizkigu?

Alde batetik, defentsa pertsonalerako baliabideak ematen dizkigu eta horrek segurtasun handia ematen digu; nork bere buruarekin seguru sentitzen denak bere buruaren irudi ezberdina ematen du. Bestalde, gorputza lantzeko oso egokia da; elastikotasuna eta mugimenduen koordinazioa lantzen dugu, eta gimnasia asko egiten dugu.

Ezpatak eta makilak erabiltzen dituzue, ezta?

Bai, hala da. Egurrezko ezpatak eta makilak erabiltzen ditugu, baina, arte martzial hau, gainerako gehienak ez bezala, etengabe garatzen eta aldatzen doa; horrela, egungo gizarteari egokitu zaio eta ezpatez gain, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun gauzekin geure burua defenditzen ikasten dugu: ur botila batekin, giltzekin...



Zeuk zela ikasi zenuen budo-taijutsua?

Orain dela hamabi bat urte hasi nintzen Josean Iñarrarekin

lanean eta azkeneko urteotan Zumarragan dihardut budo-taijutsu arte martzialen irakasle bezala.



Espaloi gainean aparkatzea

Beheko Auzoan jende askok dauka espaloi gainean aparkatzeko ohitura; batez ere, tabernara joaten den jendeak. Horrek, noski, hainbat arazo sortzen ditu, auzotarren artean, bereziki. Behin baino gehiagotan gertatu izan da, esaterako, garajeetatik irte-teko arazoak sortzea.

Arazo horiek saihesteko eta maristen eraikina zegoen orubean aparkatzeko aukera dagoenez, Udalak kartelak jarri ditu, hori gogorarazteko. Orube hori Beheko Auzotik metro gutxira dago./A.I.

LABUR

“Garfield” eta “Los rescatadores” filmak asteburuan

Gaur, egubakoitza, *Garfield* filma eskainiko dute Olaran etxean, 22:00etan.

Domeka arratsaldean, berriz, umeendako saioa izango dugu, 16:30ean, Olaran etxe-ko aretoan. *Los rescatadores* filma eskainiko dute.

Haurreskola hilaren 31n zabalduko dute

Jarri dute dagoeneko Haurreskola zabaltzeko eguna; hilaren 31n, hain zuzen ere, hasiko da martxan zerbitzu berri hori herrian.

Aurrez, hilaren 29an edo 30ean, inaugurazio ekitaldia egingo dute; Jaurlaritzakoen zain daude eguna zehazteko.

EHEk sinadurak batuko ditu oraingo asteburuan

Antzuolako Euskal Herrian Euskaraz taldeak sinadurak batzen jardungo du oraingo asteburuan; osasun zerbitzua euskalduntzea eskatzeko izango dira sinadura horiek. Taldeko kideak bihar, zapatua, Zurrategin egongo dira, 18:30etik aurrera.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urtarrilak 22
10:00: Antzuola-Arizmendi (Infantilak)
12:30: Antzuola-Gasteiz (Neskek)
16:00: Antzuola-Bergara (Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Donibane 1 Antzuola 4 (2. erreg.)
Antzuola 7 Axular 0 (Gazteak)
Zestoa 1 Antzuola 4 (Kadeteak)
Urki 1 Antzuola 7 (Infantilak)



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005ko urtarrilaren 21a / 213. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Biztanle kopuruak gora egin du azken urtean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Biztanle kopurua beherantz joan da azken urteetan, baina iazko datuak pozkekoak dira. Izan ere, 2004. urtea amaitzerako urte hasieran baino 30 biztanle gehiago zeuden Elgetan. Kanpotik herrira bizitzera etorritako jendeak eragin du gorakada.

Udaleko datuen arabera 2004. urte hasieran 1.002 biztanle zituen Elgetak. Urtea amaituta, berriz, 1.033ra iritsi da biztanle kopurua. Hala ere, azken datu hori ez da ofiziala, azken orduan hainbat aldaketa egon daitezke eta.

Baina aipatzeko moduko datua da urtebetean Elgetak 30 biztanle gehiago izatea.

Gainera, kontuan hartuta azken urteetan herritarren kopuruak behera egin zuela, poztekoa da berriz ere 1.000 biztanleko marra gainditzea.

Elgetak 1998an 984 biztanle zituen, 2002an, berriz, 961. Gora bidea hartu zuen 2003an 974 biztanlera iritsiz eta azken datuen arabera 1.033 dira jadanik. Hala ere, hainbat heriotza eta jaiotza izan dira herrian egunotan.



Azken datuen arabera 2004 urtearen amaieran 1.033 biztanle zituen Elgetak.

KANPOTARRAK

Elgetara bizitzera etorri diren kanpotarrek igoarazi dute kopurua, aurtun 44 izan dira. Pakistandarrak 14; Marokokoa bat; Pontevedrako beste bat eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriak gainontzekoak.

Elgetatik kanpora joandakoak, berriz, 19 izan ziren iaz. Honetaz gain, kontuan hartu behar da iaz zortzi ume jaiotzeak zirela Elgetan eta azken datuen arabera hildakoak bi izan zirela. Beraz, Elgetan gero eta jende gehiago bizi dela adierazi dute datuek.

GOIBEEKOKALE

PARKEA

Urte amaierarako Maala urbanizatuta

I.A.

Maala parkea urbanizatzeko 144.998,38 euroko dirulaguntza eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Urbanizazio lanen kostua osoa 289.996,76 euro da.

Parkean, plazatik Espaloraino, oinezkoendako bidea egingo dute, oraingoa behin-behinekoa baita. Oinezkoendako beste bide bat egingo dute San Roke kaletik Maala kalera Intxorta elkartearen ondotik hasita. Pasealekuan ate gotiko bat ipintzea da Udalaren asmoa. Aixolako urtegia egin zutenean Aixola Behekoa baseritik kendutako harriak erabiliko dituzte horretarako.

BERDEGUNA ETA JOLASLEKUA

Honetaz gain, Intxorta elkartearen atzeko aldean plaza bat egingo da aurreikusitako dute.

Berdeguna bat egongo da Maalan; baita umeendako jolaslekua iturria, jarlekuak, loreontziak, zakarrontziak eta zuhaitzak ere Parkean eta oinezkoendako bideetan 19 farola ipiniko dituzte.

Lan hauekin plazatik San Roke ostera Bergara aldeko bidearen zati bat eginda geratuko da Bidea osorik urte gutxi barru amaitzeko asmoa dute. Lan horien hasierak 2005eko abenduaren 31 baino lehen.

LABUR

Belodromoko proposamenaren gaineko bideoa eta hitzaldia gaur liburutegian

Orain herria, orain bakea lelopean hitzaldia izango da gaur 20:00etan liburutegian. Gatazka konpontzeko bidean Belodroman egindako ekarpena aurkeztuko dute. Bideo emanaldia izango da, eta ondoren mahai nazionalako kide batek hitzaldia egingo du.

Korrikako batzordea osatzeko bilera egingo dute martitzenean liburutegian

Aurtun Korrika martxoaren 16an pasatuko da Elgetatik. Egun hori tan eta aurretik egingo diren ekitaldiak antolatzeko batzorde bat sortu nahi dute. Batzordea osatzeko bilera martitzenean izango da liburutegian, 20:00etan, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Pello Alberdi pintorearen margolanak ikusgai Bergaran eta Gasteizen

Hilabete amaierara arte Bergarako Nahikari tabernan Pello Alberdi elgetarraren 13 lan egongo dira ikusgai. Olioak erabiliz sortutako hiri-paisaiak dira. Bestalde, bihar izango da azken eguna Alberdiaren lanak Gasteizko Felisa Navarro aretoan ikusteko.

Goibekoko bazkide gaztetxoek 10 euro ordaindu beharko dituzte txartelaren truke

Goibeko elkarteak bazkide kanpaina egiten dihardu. Gaztetxoek kuota merkeagoa da, eta Goibekokoek erabaki dute adin merkeagoa zabaltea txartela egiteko orduan. Beraz, 10 euro ordaindu beharko dituztenak 3 eta 16 urte bitartekoak izango dira. Jakinarazi denez, jadanik 200 bazkidera heldu da Goibeko elkarteak.

ENPRESA

Eduardo Zubiaurreren enpresa aukeratu dute azterketa egiteko

I.A.

Ezagutzaren Klusterraren eta EAeko Unibertsitateen artean argitalpen bat kaleratzen dute urtero: Enpresa Kudeaketa Aurreratuen Kasuak.

Zenbait enpresa proposatu eta aukeratu dira, eta unibertsitateko irakasleek horien gaineko azterketak egiten dituzte. Enpresa kudeaketaren ikuspuntu aipagarrienak nabarmentzen dituzte. Gero, ingeniari edo enpresa fakultateetan, ikasgai batzuetan,

erabiltzen dira ikasleei kasu errealek aurkezteko.

JAZ ZUBIAURRE

Aurtengoan Eibarko enpresa bat aukeratu dute: Jaz Zubiarre. Enpresaren jabea Elgetan bizi den Eduardo Zubiaurre eibartarra da. Eta ez da Zubiaurreren enpresak jaso duen lehen aipamena. Izan ere, Toribio Etxebarria Berrikuntza saria jaso zuen 2003an.

Kasu guztiak otsailaren 4an aurkeztuko dituzte Donostiako parke teknologikoan.



Eduardo Zubiaurre, enpresaburua.

GOIBEEKOKALE

ELKARRIZKETA

HIART BOLINAGA ETA ANDONI ELORTZA/DANTZARIAK

“Horrenbeste urteren ostean nekatu egin garelako utzi dugu dantza soltea”

I.A.

H iart eta Andoni taula gainean dantzari eza-gutu ditu askok. Orain, ordea, gelditu egin dira euren pausoak. Iazko txapelketak amaituta etena egitea erabaki dute, eta horren arrazoia jakiteko euren gana jo dugu.

Noiz eta nolatan hasi zineten dantza soltean?

Gurasoek animatuta dantza ikasten hasi ginen Bergaran Dani Azpiazurekin bost urte genituela. Gero proposatu ziguten bikote moduan lehiaketetan parte hartzea, eta hamar urte egin ditugu. Orain, zer dela eta erabaki duzue uztea?

Horrenbeste urteren ostean, nekatu egin gara. Gainera, orain txapelketetan nagusien mailara pasatzeko adinean gaude, jarraituz gero entrenamendu gehiago egitea eskatzen du horrek. Dantzari hainbeste denbora ezin diogu eskaini, ikasketak ere hor daude eta. Hala ere, pena pixka batekin utzi dugu dantza.

Zer izan da urte hauetan dantzak eman dizuen onena?

Dantzak ongi pasatzeko aukera eman digu bai txapelketetan eta baita entseguetan ere.

Eta zuek dantzari zer eman diezue?

Urtero saiatu izan gara pauso berriak egiten. Izan ere, epaimahaikoek hori saritzen dute. Txapelketa askotatik pasatuko zineten, ezta?

Guztira 225 izan dira. Irabazi genuen lehen txapelketa beti izango dugu gogoan. Oiarzunen izan zen eta 11na urte genituen. Guztira, 18 txapelketa irabazi ditugu. Izan ziren bi urte (2002-2003) lehenengo eta bigarren postuetan askotan sailkatu ginenak txapelketetan. Txapelketatik kanpora ere dantza erakustaldietan hartu dugu parte.

Ahazteko moduko plazarik?

Oiartzungo iazko txapelketa. Txistulariek oso motel jo zuten,



AITOR LIZARRALDE

“Dantzak ongi pasatzeko aukera eman digu, bai txapelketetan baita entseguetan ere”

eta horren erruz gaizki egin genuen gure erakustaldia. Ahaztu beharrekoa da, baina arantza barruan geratu zitzaigun.

Baduzue gerora berriz dantzan hasteko intenziorik?

Oraingoz utzi egingo dugu baina baliteke berriz hastea.

“Gure ondoren ez da beste inor hasi dantza solteko txapelketetan Elgetan”

Elgetan bada dantzan zuen bidea jarraituko duenik?

Ez, inor ez da ikasten hasi, beraz, etorkizunik ez diogu ikusten. Gu irakasle lanetan hastea litzateke irtenbide bat, baina zaila da. Gainera, beste zaletasun batzuek lehentasuna dute.

ERREPIDEAK

Saihesbidearen lanak apirilean hasiko dira

I.A.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Construcciones Galdiano enpresari eman dio saihesbidearen lehen faseko lanak egiteko ardura. Lanen kostua 1.260.276 euro izango da.

Udaletik jakinarazi digutez, apirilean hasiko dira obrak eta gutxi gorabehera bost hilabetean amaituko dituztela aurreikusitako. Saihesbidea oso lan garrantzitsua izango da Elgetarako. Izan ere, horrela ez dira

ibilgailuak Salbador kaletik pasatuko. Bestalde, kamioiek Salbador kalearen eta arkuaren artean maniobra arriskutsuak egitea ere saihestuko da.

SALBADOR KALEA

Bada proiektu bat Salbador kalea oinezkoendako ipintzeko. Beraz, behin saihesbidea egindakoan, zirkulazioarendako Salbador kalea itxi egingo dute eta ibilgailuak garajeetara joateko edo zama lanetarako bakarrik sartuko dira.

MUSIKA

Gariren azken laneko kantuak Espaloian

I.A.

Iñaki Garitaonaindia *Gariren* kontzertua izango da gaur, barikua, Espaloia Kafe Antzokian, 23:00etan hasita.

0-tik izeneko azken lana aurkeztuko du; baina diskoko kantuez gain, joko ditu beste hainbat. Bakardadean jorratutako esperientzia baten emaitza da disko ausart hau. Bere ahotsaren sensualitatean babestuz, abilezia, adore eta sinesgarritasun handiz

ematen die irtenbidea kantuei. Estilo dotorea eta lengoia ulergarria erabiltzen ditu emozioak adierazteko.

Kontzertuan bere gitarraz gain, beste hainbat musikari izango ditu lagun.

SARRERAK

Sarreraren erreserba egiteko telefono honetara deitu behar da: 943 78 90 85. Sarrerak 10 euro balio du; Goibekoko bazkideek 8 euro ordainduko dituzte.



GOIBEKOKALE

Garik bere taldearekin jardungo du Espaloiko kontzertuan.

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN
Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53